

# Euskal AEko biztanleak

Hurrengo taulan Euskal AEko 2006. urteko datuak ematen dira. Bada, begiratu ondo datu horiek eta gero erantzun hurrengo galderi.

## 2006. urtea

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
<b>Euskal AE</b>	2.129.339	1.039.934	1.089.405
Lurralde Historikoak:			
Araba	305.822	152.290	153.532
Bizkaia	1.136.852	550.638	586.214
Gipuzkoa	686.665	337.006	349.659

Iturria: [http://www.eustat.es/ele/ele0004700/tbl0004736\\_e.html](http://www.eustat.es/ele/ele0004700/tbl0004736_e.html)



❖ Zenbat biztanle zeuden Euskal AEn erroldatuta 2006. urtean? Horietatik zenbat ziren emakumeak eta zenbat gizonak?

.....

.....

❖ Emakume kopurua gizonena baino handiagoa izan zen lurralde historiko guztietan?

.....

.....

❖ Zein lurralde historikok du biztanle gehien?

.....

.....

❖ Kalkula ezazu hurrengo eragiketaren emaitza taulako datuak hartuta, baina kenketa egin gabe:  $305.822 - 152.290 =$   
Nola ateratu duzu ondorio hori?

.....

.....

❖ Kalkula ezazu hurrengo eragiketaren emaitza taulako datuak hartuta, baina gehiketa egin gabe:  $305.822 + 1.136.852 + 686.665 =$   
Nola ateratu duzu ondorio hori?

.....

.....

❖ Zer esan nahi du 337.006 balioak?

.....

.....

❖ Gipuzkoako eta Arabako biztanle kopuruak alderatuta, zenbat aldiz da Gipuzkoako biztanle kopurua Arabakoa baino handiagoa? Egin gutxi gorabeherako kalkulua eta gero azaldu nola ateratu duzun ondorio hori.

.....

.....

.....

.....